

MARKINA-XEMEIN / Errumaniarren jaia egongo da domekan Uhagon Kulturgunean

18:30ean hasiko da jaia; Errumaniako janari dastaketa eta kontzertua egongo dira.

MADDI IBAIBARRIAGA ZUBIKARAI

Uhagon Kulturguneak eta Herri Bibliotekak errumaniar jaialdia antolatu du domekarako, "hango kultura eta ohiturak hobeto ezagutzeko asmoagaz. Jaialdia Markina-Xemeinengo errumaniar eta moldaviarren laguntzagaz antolatu dute.

18:30etik aurrera hasiko da jaia Uhagonen. Lehenengo, Errumaniako janaria probatzeko aukera egongo da.

Horren ostean, berton bizi direnez osatutako Moldavia musika taldeak kontzertua eskainiko du. Talde horrek Errumania, Moldavia eta Errusiako musika tradizionalak eskainiko ditu bere emanaldian.

Hainbat ekimenen barruan

Iaz hasi ziren herrialde desberdinak ezagutzeko ekitaldiak egiten. Orduan Senegal izan zuten aztergai, eta aurren, oster, Errumania.

Antolatzaileek adierazi dutenez, "herrian bizi diren herrialde ezberdinetako etorkinei buruz gehiago jakin eta eurak be alkartzea da ekimen horien helburu nagusia.

Domekan egingo den jaialdia eta asteotan egin diren errumaniari buruzko ekimenak proiektu baten barruan antolatu dira. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzako liburutegi zerbitzuek antolatutako Liburutegiak topalekuren barrukoak dira.